

SAIO KLINIKO OROKORRA – BASURTUKO UNIBERTSITATE OSPITALEA
INFEKZIOSOEN ZERBITZUA**HIZLARIA: IRATXE LOMBIDE AGUIRRE DK.****MODERATZAILEA: JOSU BARAIA-ETXABURU ARTETXE DK.****2019KO IRAILAREN 27AN, 8:15EAN. GORBEIA EKITALDI-ARETOAN (GOBERNU PABILOIA))****KASU KLINIKOA**

Kasu kliniko bi aurkezten ditugu. Biak dira patologia berdineko azalpen kliniko desberdinak.

KASU 1:

Gizonezkoa, 81 urtekoa, alergia ezagunik ez duena, hipertentsoa, diabetikoa tratamenduan, dislipemikoa, SAHOS (lotaldian apnea-hiperpnea buxatzailea) CPAPekin tratatua. Benetako tronbosi sakona (TVP) eta biriketako tronboenbolismoa 2010an. Prostata-hipertrofia onbera (HBP). Tratamendu basala: Metformina, Doxium, Balsartan/HKTZ, Sinbastatina eta Sintrom

Ospitalera dator bere ohiko disnea handitu delako eta orain ahalegin txikiekin ere badu. Ortopnea eta diuresiaren gutxitzea ere baditu. Azken 3 egunetan hotzeria (katarroa) eta eztula ditu. Famili mediduak baloratzen du eta Seguril 40 mg/24 ordu eta Amoxizilina/klabulaniko 875/125 mg/8 ordu ematen dizkio.

Konstanteak: TA 160/80, BF 75 taupada/min, O₂sat %94, sukar gabe
Obesitatea, egoera orokorra egonkorra, atsedenean takipneiko, tiradurarik gabe. Pletora baloratu ezina, AKP: erritmikoa, murmurio gabea, eskuineko oinaldean krepitanteak, sabel biguna, ez mingarria. Beheko gorputzadarretan edemak.

KASU 2:

Gizonezkoa, 43 urtekoa, erretzaile aktiboa, aurretiaz ezkerreko sinusitis-gertakaria betzulo inguruko edemarekin konplikatu zena eta amoxizilina/klabulanikoarekin konpondu zena

Ospitaleratzen dute 4 egunetako sukarra (gehiengoa 39.9°C), hotzikarak eta eztul sikuagatik.

Konstanteak: TA 106/73 mmHg, BF 103 taupada/minutuko, T^a 39°C, O₂sat %99
Atsedenean eupneiko, aho eta faringea hiperemikoak baina hipertrofia edo amigdala-exudatu gabea, AKP: erritmikoa, murmuriorik ez eta arnas-murmurio normala. Sabela biguna eta ez mingarria. Hanketan edemarik edo tronbosi zeinurik ez.

GALDERAK

- Zein da zure hasierako susmo kliniko kasu bakoitzean?
- Ze proba osagarri eskatuko zenizkioke bakoitzari?